

08.

PLANAREN EBALUAKETA

Planaren iraunaldiaren urte bakoitzaren hasieran, Sail arteko Batzordean eta Berdintasun Batzordean aurkeztuko da, urteko plan operatiboa. Honek ahalbidetuko du helburuak, neurriak, ekintzak eta aurrekontua zehaztea. Helburu bakoitzak ekintza eta adierazleak ditu, adierazle hauek zer neurtu behar den zehazten dute eta berdintasunaren garapena neurtzen lagunduko dute.

Urte bukaeran Jarraipen Memoria osatuko da, plan operatiboan jasotako ekintzen garapenaren gaineko informazioa jasoko duena. Hala nola Sail arteko Batzordean eta Berdintasun Batzordean jasotako informazio kualitatibo oro.

IV Planaren iraunaldi epea bukatuta, IV Berdintasun planaren ebaluaketa egingo da, urteroko jarraipen txostenak abiapuntu hartuta eta jasotako informazio kualitatiboa aintzat hartuta. Helburua da, ondorioak eta gomendioak ateratzea, etorkizuneko ekintzei begira.

Bestalde, Emakundek urtero ebaluaketarako eskatzen duen jarraipen galdeketa elektronikoa osatuko da.

